

Euskal Herriko Unibertsitateko Jokamoldearen Ekologia eta Eboluzioa Ikertaldeak
2017ko Abuztuaren 1etik 5era Donostian ospatuko den EBRS antolatuko du. Saguzarrei es-
kainitako kongresu horrek Europako adituak bildu eta ezagutza berriena plazaratuko du.



**EBRS
2017
DONOSTIA**

Abuztuaren 1etik 5era

UPV/EHUK *European Bat Research Symposiuma* antolatuko du Donostian

Konferentzia honetan Europa
Kosoko saguzarretan aditu
diren ikerlari, irakasle, kontsultore
eta gobernutako
ingurumen teknikari
ugari biltzen da.
Izan ere, saguzarrak
Europan mehatxu
handienetakoa
pairatzen duten eta
ezezagunenetakoa
diren ugaztunak izanik,
pertsonek ugariren
interesa pizten dute.
Izaki hauen bizimodu
bitxiak eta haiei buruzko mito eta
eritzi faltsuek interes hori areagotu
egiten dute publiko zabalean ere.

**Hiru urterik
behin burutzen
den Konferentzia
honek 150-300
aditu europar
biltzen ditu**

Nolanahi, 150 eta 300 pertsona
Narteko partaidetza biltzen
du hiru urtetik behin *European
Bat Research
Symposium* deritzon
konferentziak.
2017 urteko udan
14garren edizioa
Euskal Herrian
ospatuko dugunez,
jende ugari
hurbiltzea espero
dugu, konferentziak
berezkoa duen
kalitate akademikoaz
gain eskainiko dugun
ingurune, giro eta markoak ere
erakargarri egingo dituelako.

SAGUZARRAK: ERRONKA ETA INTERESA

Saguzarrak sentimendu kontrajarriak sortarazten dituzte eta gutxi dira animalio hotz uzten dituztenak. Edonola, harrokeririk gabe esan daiteke ugaztun interesgarrienetakoak direla ikuspegi biologikotik. Haien moldapen bitxi eta bizimodu

ezohekoak ikerlari ugariren interesa piztu du munduan, alabaina animalion azterketa zailtasun teknikoak jositako dago. Ilunpean eta isilik bizi den hori ikertu nahi duenak teknologia punta-koena erabiltzeko prest egon behar du.

Munduan ia 1300 espezie saguzar bizi dira eta egungo ugaztunen arteko talderik dibertsoena osatzen dute. Bizimodu gautarra eta jokabide ezkutua tarteko, ordea, haien bizimodua eta ekologia ezin izan dira oraintsu arte aztertu. Edonola, azken hamarkadetan gertatutako garapen teknologiko izugarriak ate berriak zabaldu ditu. Aurrerapen horien eskutik, saguzarrak, animalia misterioitsu —ia beldurgarri— horiek, konplexutasun handiko eredu biologiko gisa agertu zaizkigu, eta interes handia piztu dute arlo ezberdinetan zientzilarien artean. Horren erakusle, 2000-2010 hamarkadan nazioarteko aldizkari zientifikoetan ugaztun buruz argitaratutako artikuluen erdiek baino gehiagok saguzarrak eta beraien biologien atal ezberdinak izan dituzte jomuga.

Ugaztun gautar hegalaria hauek makina bat aztergai dituzte ikerlarien jakinmina kitzikatzen dutenak: ilunpe osoan espazio tridimentsionalean harrapakin txikiak identifikatu eta jarraitzea ahalbidetzen dien zentzumen-sistema miragarria (ekokopapena), naturan egun antzekorik ez duen eta mintzezko hegoez baliatzen den aerodinamika berezia, hauekin loturiko aniztasun morfoekologiko izugarria, habitat eta elikagai ugari baliatzeko ahalbidetzen dituen, energia muturreraino aurrezteko moldatutako metabolismo heterotermoa, babesteko ohitura berezia, jokabide sozial konplexua, ugalkortasun baxuak eta biziraupen luzeak baldintzatutako ikasketa-prozesuen garrantzia, espezializazio trofiko eta espazialen aniztasuna, beste askoren artean. Aztergai hauek guztiak lantzeko infragorritan grabatzeko abiadura handiko bideo-grabagailuak, ultrasoinuak grabatu, identifikatu eta aztertzeko tresneria eta software bereziak, irratitelemetriako azken aurrerapenak, inguru-

menaren modelizazio informatikorako teknikak, ekologia molekularreko aukera berriztaileak, eta beste hainbat azken orduko aurrerapen teknologiko erabiltzen dira, saguzarrak ekoizpen zientifiko handiko aztergai eta kriseilu bilakatu.

Azkenik, ez dezagun ahaztu saguzar ugari desagertzeko zorian daudela munduko eskualde askotan, baita Euskal Herrian ere. Eguna lasai igarotzeko tokiak desagertzeak edo hibernatzeko kobatako molestia eta eraldaketek animaliak babesleku desagokietara bultzatzen dituzte. Ehizan kaleko argitan ikusten baditugu ere, gehienetan ehizaleku naturalak erabiltzen dituzte eta horiek murriztuz doaz edo kutsatu egiten ditugu. Tamalgarria da, izan ere, saguzarrek onurak ekartzen baitituzte ingurumenean zuzenean eta giza jardueratan zeharka, adibidez izurriteak sortzen dituzten hainbat zomorro kontsumituz.



Ekitaldi akademikoa: aurkezpenak eta eztabaida

Honela ekitaldietan 100tik gora lanetako emaitzak aurkezten dira, idatziz eta ahoz. Azken urtetan gainera gora egin du aurkezpen kopuruak, 150era heldu delarik.

Europako herri eta herrialde guztietatik etorritako ikerlari, aditu eta zaleek hartzen dute parte eta bai Amerika, Asia eta Afrikakoek ere. Partehartzaileen kopurua hasierako urtetako 70etik azken urtetako 250era igaro da.




Hainbat sari akademiko ere banatzen dira. Kongresuan aurkeztutako Poster eta Hitzaldi onenak eta hizlari gazte onena opariekin saritzen dira. Opariok Kongresuaren espontsor direnek ematen dituzte.

Eta noski Biltzar honetan atal ludikorik ere bada: Hainbat ekitaldi burutzen dira partaideen arteko hartuemanak eta elkar ezagutza sustatuz:

Irteerak inguruko txokoak ezagutzera



Banketea



European local Gastroparty



AZKEN EKITALDIA, 2014ko ABUZTUAN, KROAZIAKO KOSTAKO SIBENIK HERRIAN BURUTU ZEN



KROAZIAKO EKITALDIKO PARTAIDEAK

European Bat Research Symposium Europako saguzarren ikerketa eta kontserbaziora dedikatutako adituen bilkura

1981tik hona bizpahiru urtetik behin burutzen den ekitaldi akademikoa izanik, aurreko jardunaldietan Europa alderik alde zeharkatu du dagoeneko.
Orain Euskal Herriaren txanda da



Hurrengo ekitaldia Helsinkin burutuko da 2020 urtean, Finlandiako Historia Naturaleko Museoak eta Helsinkiko Unibertsitateak antolatuta.